

Euskal Babel

Euskal Herriko edozein kaletara atera eta euskara, gaztelania edo frantsesaz gain, asko dira entzungo ditugun hizkuntzak. Horietako batzuk identifikatu ahal izango dituzu, baina ziurrenik beste batzuk ez duzu jakingo ezta zein hizkuntza diren ere! XXI. mendean ezagutzen ari garen migrazio fenomenoak izango ditugu hizpide nagusi. Baina arreta bereziz aztertuko dugu gure inguruan, edo Euskal Herrian oro har, bizi diren etorkinak nondik datozen eta zein hizkuntza darabiltzaten.



Gaiari heltzeko Kike Amunarrizek Tribuaren Berbak saioan egindako bideo hau ikusiko duzu (*HH15-MO-Euskal Babel 1*).

1- Nondik datoz Euskal Herrira?

Jarraian ikusiko duzun bideoan Amunarrizek azalduko digu nondik datozen Euskal Herrira azken urte hauetan iritsitakoak. Bideoa ikusitakoan komentatu lan taldean galdera hauek (*HH15-MO-Euskal Babel 2*):

- Bideoan aipatu diren datuak eta proportzioak espero zenituzten edo harritu egin zaituztete?
- Bat datoz zuen inguruan ikusten duzuenarekin?

2- Nola hitz egiten dute?

Euskal Herriko datu orokorrak ikusi ondoren, bizi garen herrira hurbilduko gara eta bertan bizi diren etorkinen inguruko informazioa partekatuko dugu gelan. Baina hasteko, ikusi bideoa. Ea zein den beraien herrietako egoera! (*HH15-MO-Euskal Babel 3*).

Bideoa ikusitakoan komentatu lan taldean ondorengo galderak:

- Nongoak dira -zein herrialdeetakoak- azken urteotan gure herrira etorri diren etorkinak?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute? Zenbat hizkuntzatan hitz egiten da Gasteizen?
- Zenbat herrialdeetako pertsonak ezagutzen dituzu pertsonalki?

Azkenik, ikusi ondorengo bideoa. Ea bertako protagonistek hitz egiten dituzten hizkuntzak ezagutzen dituzuen! (*HH15-MO-Euskal Babel 4*).

3- Jatorri eta hizkuntzen mapa

Ondorengo bideoan Xabier Aierdi soziologoak Euskal Herrian bizi diren etorkinen jatorrien eta hizkuntzen ikuspegia emango digu (*HH15-MO-Euskal Babel 5*).

Bideoa ikusitakoan, komentatu lan taldean:

- Identifikatu ditugun hizkuntzen ezaugarri nagusiak komentatu: non hitz egiten diren, zenbat hiztun dituzten, etab.
- Identifikatu ez ditugunak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen saia zaitezkete.



4- Hizkuntza bakarra ala aniztasuna?

Bizitzaren alor askotan bezala, hizkuntzen inguruan ere oso ikuspegi desberdinak daude gizartean: munduko hizkuntzen aniztasuna zaindu eta sustatu behar dela uste dutenak, batetik, eta munduan hizkuntza bakar izanda nahikoa litzatekeela uste dutenak, bestetik. Azken hauen artean, gehienek hizkuntza bakar hori berea izatea nahi lukete, noski!

Zein taldetakoa zara zu? Zein da zure iritzia?

Komentatu lan taldean eta konparatu ondorengo bideoko kale inkestan hiritarren emandako erantzunekin (*HH15-MO-Euskal Babel 6*).

kale-inkestan entzun ditugun iritziak aintzat harturik, hizkuntza bakarra izateak dituen abantailak eta desabantailak eta hizkuntza-aniztasunaren abantailak eta desabantailak zerrendatuko dituzue talde handian.

Lehenik, pentsatu zeren alde zaudeten eta zergatik, eta ondoren, eman zuen iritziak talde handian.

Hizkuntza bakarra izatearen alde onak	Hizkuntza bakarra izatearen alde txarrak

Euskal Herrian hitz egiten den hizkuntza kopuruaren inguruan aritu gara orain arte, baina zuek, zenbat hizkuntza dakizkizue, non ikasi dituzue, eta zein mailatan menperatzen dituzue? Horietatik zein dira etxean jasotakoak eta zein etxetik kanpo ikasitakoak?

5- Zer jarrera dute etorkinek euskararekin?

Orain arte etorkinez aritu gara, baina, oraindik ez dakigu beraiek zer nolako bizipenak izan dituzten gure hizkuntzarekin, nolako jarrera duten euskararekiko, edo nola eta zergatik hurbildu diren euskarara. Hitza beraiei emango diegu, beraz. Entzun arretaz ondorengo bideoan zer dioten Gernikako ikasle hauek! (HH15-MO-Euskal Babel 7).



Zuen artean ba al dago Euskal Herritik kanpo jaiotakorik? Edo Euskal Herritik kanpo jaiotako gurasoren bat duenik? Kontatuko al zenuke zure esperientzia? Hurrengo bideoan ikusiko dugun pertsona kubatarra da, Eskoriatzan bizi da eta Yuli Vargas du izena. Ikusi bideoa eta ezagutu bere bizipenak! (HH15-MO-Euskal Babel 8).

Yuliri bezala, gertatu al zaizu inoiz hizkuntza ezagutzen ez duzun herrialde batean izatea? gertatu al zaizu inoiz egoera xebrereren bat tokiko hizkuntza ez ezagutzeagatik? Ba al daukazu horrelako bizipenik? Idatz ezazu, eta gero idatzitakoa ikaskideei kontatu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....